

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

NEKAZARITZAKO IDAZKARITZA TEKNIKOA

16/2024 Foru Agindua, uztailaren 18koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiattegietako ganadua basafaunaren erasoetatik babesteko eta ehiza espezieek 2024an landa ingurunean eragindako kalteak arintzeko prebentzio neurriak ezartzeko laguntzen deialdia

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 12ko 32/2022 Foru Dekretuaren bidez, onetsi ziren Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiattegietan abereak basafaunaren erasoetatik hobeto babesteko prebentzio neurriak ezartzeko laguntzen oinarri arautzaileak.

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 20ko 33/2023 Foru Dekretuaren bidez, aipatutako dekretu horretan jasotako laguntzen oinarri arautzaileen aldaketa onetsi zen, eta ehiza espezieek landa ingurunean eragindako kalteak arintzeko prebentzio neurriak gehitu ziren.

Ekainaren 20ko Foru Gobernu Kontseiluaren 33/2023 Foru Dekretuaren 4. artikulua xedatzen duenez, laguntza deialdi bakoitzean honako hauek zehaztu behar dira: eskaerak aurkezteko epea eta lekua; laguntza lerroak, hala badagokio; laguntza lerro bakoitzaren deialdia ebazteko erreserbatzen diren kredituak; espediente eta laguntza programa bakoitzeko laguntzaren gehieneko zenbatekoa; diruz lagun daitezkeen inbertsioak, laguntzaren ehuneko eta gastu onargarriaren mugak, hala badagokio; laguntza lerro bakoitzeko onuradunen betekizun espezifikoak, laguntza lerro bakoitzeko espedienteak sailkatzeko eta kalifikatzeko irizpideak, hala badagokio, eta eskatutako gastuak eta inbertsioak egiteko epea.

Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko ekitaldiko gastuen aurrekontuan badago kreditua laguntza horien 2024rako deialdia onesteko.

Nahitazeko txostenak aztertu dira. Horien ondorioz, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiattegietako ganadua basafaunaren erasoetatik babesteko eta ehiza espezieek 2024an landa ingurunean eragindako kalteak arintzeko prebentzio neurriak ezartzeko laguntzen deialdia, bat etorri Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 20ko 33/2023 Foru Dekretuaren bidez eta Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 12ko 32/2022 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileetan xedatutakoarekin. Hona hemen:

1. Deitzen diren laguntza lerroak

1. lerroa: abeltzaintza ustiattegietan prebentzio neurriak ezartzea.
2. lerroa: ehiza espezieek landa ingurunean eragindako kalteak arintzeko prebentzio neurriak ezartzea.

2. Onuradunen betekizunak

1. lerroa: abeltzaintza ustiattegietan prebentzio neurriak ezartzea:

Behi, zaldi, ardi edota ahuntz espezieen ugalketarako animaliak dituzten eta Arabako Foru Aldundiaren Abeltzaintzako Ustiategiaren Erregistroan (REGA) erregistratuta dauden ustiategiaren titular diren pertsona fisiko edo juridikoek eskatu ahal izango dituzte dirulaguntzak.

Ustiategi eskatzaileen sailkapen zooteknikoa honako hauetako bat izan behar da:

- “behi ekoizpena eta ugalketa”;
- “haragitarako zaldien ekoizpena eta ugalketa”;
- “ardi ekoizpena eta ugalketa” edota,
- “ahuntz ekoizpena eta ugalketa”.

Zaldien, ardien edota ahuntzen azpiustiapena duten eta 2024ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik jarduera duten abeltzaintza ustiategi eskatzaileek errolda aitortpena edota urteko derrigorrezko aitortpena eduki beharko dute.

2. lerroa: ehiza espezieek landa ingurunean eragindako kalteak arintzeko prebentzio neurriak ezartzea.

Arabako Lurralde Historikoan legez eraturako erakunde eta pertsona fisiko edo juridikoek eskatu ahal izango dituzte laguntzak, baldin eta lekuan bertan dauden espezieen ehiza aprobetxamenduaren titular edo errentari badira eta aprobetxamendu horren kudeaketaren arduradun badira ehizaren ondorioetarako, eta ehiza jardueraren funtzionamendua administratu eta antolatzen badute, ehiza barruti baten edo baimendutako beste edozein ehiza jardueraren titularrak edo esleipendunak izan, edota horien elkarteak edo ehiza barrutiak edo kontrolatutako ehiza eremuak sustatzen dituzten toki erakundeak izan, baldin eta dagokion eremuko kalteen erantzule zibilak badira.

3. Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak

Deialdi honetan diruz lagundu ahal izango dira honako inbertsio hauek:

1. lerroa: abeltzaintza ustiategietan prebentzio neurriak ezartzea:

– Abereentzako hesi eramangarriak erostea. Hesi eramangarriek, dirulaguntza jaso ahal izateko, artzain elektrikoa izan beharko dute, edo eskatzaileak artzain elektrikoa duela egiaztatu beharko du.

– Artzain elektrikoak erostea.

– Abereak geolokalizatzeko gailuak erostea.

– Abeltzaintza ustiategiei Espainiako mastin, Pirinioetako mastin eta Pirinioetako mendiko mastinak edo horiek gurutzatuta sortutako mota aitortuak erostea edo izatea. Txakurrek identifikatuta eta EAEko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (AIEO) erregistratuta egon behar dute, eta erantzukizun zibileko aseguru batek estalita.

2. lerroa: ehiza espezieek landa ingurunean eragindako kalteak arintzeko prebentzio neurriak ezartzea:

– Itxitura sistema eramangarriak eta horiek behar bezala funtzionatzeko elementu osagarriak eskuratzea, ehiza espezieak kontrolatzeko harrapaketa selektibo gisa erabiltzeko. Horiek diruz lagundu ahal izateko, eragingailu automatiko edo askagaitza izan behar dute edo urruneko harrapaketa sistema elektronikoak.

– Itxitura sistema eramangarriak instalatzea eta kontratatzea, bai eta, ehiza espezieak kontrolatu ahal izateko, itxitura sistema horiek animaliak bizirik harrapatzeko harrapaketa selektibo gisa erabiltzeko elementu osagarriak ere. Horiek diruz lagundu ahal izateko, hirugarren batek egin behar ditu lanak, eta sistemek eragingailu automatiko edo askagaitza izan behar dute edo urruneko harrapaketa sistema elektronikoak.

– Itxitura elektrikoko sistema eramangarriak eskuratzea, bai eta erabilera funtzional egokirako beharrezkoak diren osagai osagarriak ere; esaterako, artzain elektrikoa erostea, baldin eta ehiza espezieen prebentzio kontrola egiteko eta horiek eragiten dituzten kalteak eragozteko erabiltzen badira.

– Ehiza espezieen aleak geolokalizatzeko eta laginketarako gailu automatikoak erostea, populazioa kontrolatzeko.

– Kontrolatu beharreko ehiza espezieak uxatzeko eta aldaratzeko gailu elektroniko homologatuak eskuratzea, baldin eta indarrean dagoen araudiak horiek erabiltzeko baimena ematen badu.

4. Eskaeren lehentasun irizpide orokorrak

Espedienteen lehentasun ordena laguntza lerro bakoitzerako eskuratutako puntuazioaren arabera izango da: puntuazio handienetik txikienera. Azken tartean diruz lagun daitezkeen espedienteen berdinketa gertatuz gero, haien artean hainbanatuko da.

1. lerroa: abeltzaintza ustiatagietan prebentzio neurriak ezartzea:

– Otsoek abereei eraso dieten udalerrietan kokatutako ustiatagiak edota otsoek abereei eraso dieten mendietan larreak aprobetxatzeko eskubidea duten ustiatagiak: 5 puntu.

– Titularra emakumea duten ustiatagiak: 5 puntu.

– Finkatze prozesuan dagoen nekazari gazte bat titular duten ustiatagiak: 4 puntu.

– Lehen aldiz instalatzeko prozesuan dauden ustiatagiak (eskaera dataren aurreko 24 hila-beteetan): 3 puntu.

– Onura publikoko mendietan larreak aprobetxatzeko eskubidea duten ustiatagiak: 3 puntu.

2. lerroa: ehiza espezieek landa ingurunean eragindako kalteak arintzeko prebentzio neurriak ezartzea:

– Kalteak direla eta AFAk kontrol neurriak baimendu dizkien pertsona fisikoak eta juridikoak, bai eta elkarteak eta tokiko erakunde onuradunak ere, deialdiaren aurreko hiru urteetan kontrol neurriaren xede diren ehiza espezieetarako: 0,5 puntu baimendutako kontrol neurri bakoitzeko; gehienez ere 5 puntu.

– 2024ko urtarrilaren 1etik dekretu hau argitaratzen den eguneraino kalteak eragiten dituzten ehiza espezieak kontrolatzeko neurriak eskatu dituzten pertsona fisikoak eta juridikoak, bai eta elkarteak eta tokiko erakunde onuradunak ere, baldin eta eskatutako inbertsioaren xedea espezie horiek kontrolatzea bada: 2 puntu.

– Aurreko bi urteetan kalteak eragiten dituzten ehiza espezieak kontrolatzeko prebentzio neurriak hartu izana dokumentu bidez justifika dezaketen pertsona fisikoak eta juridikoak, bai eta elkarteak eta tokiko erakunde onuradunak ere: puntu 1.

5. Laguntzen zenbatekoa

Hauek dira laguntza lerroetako zenbatekoak:

1. lerroa: jardueraren kostuaren ehuneko 50erainokoa izango da laguntza, eta gehienez ere 5.000,00 euro emango dira eskaera bakoitzeko.

– Espainiako mastin, Pirinioetako mastin eta Pirinioetako mendiko mastinak edo horiek gurutzatuta sortutako arraza aitortuak erosteko laguntzak gehienez ere 600,00 eurokoak izango dira txakur bakoitzeko, eta, txakurra izateagatik, gehienez ere 500,00 eurokoa txakur bakoitzeko.

2. lerroa: oro har, ehiza espezieek landa ingurunean eragindako kalteak arintzeko prebentzio neurrietarako laguntzak eskuratze kostuaren ehuneko 50erainokoa izango dira, eta gehienez ere 1.500,00 eurokoak eskaera bakoitzeko.

– Itxitura sistemak harrapaleku gisa erabiltzeko erosi, instalatu eta kudeatzen badira, jarduketaren kostuaren ehuneko 75eraino handituko da laguntza, eta eskaera bakoitzeko 3.000,00 eurokoa izan daiteke gehienez. Itxitura sistema horiek instalatzeko eta kudeatzeko laguntzei dagokienez, ezingo dira izan 750,00 eurotik gorakoak kontratatutako kudeaketa hilabete bakoitzeko.

6. Eskatutako dokumentazioa

Dokumentazio orokorraz gain, deialdi honetako laguntzak eskatzeko, honako hauek aurkeztu beharko dira:

– Diruz lagundu daitezkeen ondasun, objektu edo txakur espezieko animalien aurrekontua edo proformako faktura edota erosketa faktura, hala badagokio. Hartzekoduna, zenbatekoa eta jaulkipen data agertu beharko dira.

– Egindako erosketen fakturak aurkeztuz gero, horiek ordaindu izanaren frogagiriak ere aurkeztu beharko dira, eta noiz ordaindu diren agertu beharko da.

– Gainera, lerro bakoitzerako honako hauek aurkeztu beharko dira:

• 1. lerroa. Mastin motako txakurrak erosi edo izateagatiko laguntza eskatuz gero:

– Laguntzaren xede diren txakurren kartillaren edo pasaportearen kopia.

– Laguntzaren xede diren txakurren erantzukizun zibileko aseguru polizaren kopia.

• 2. lerroa. Harrapaleku gisa erabiltzeko itxitura sistema eramangarriak erosi, kontratatu eta kudeatzeko laguntza eskatuz gero:

– Egin beharreko ekintza justifikatzen duen txosten teknikoa. Arabako Foru Aldundiko Ehiza eta Arrantza Atalak oniritzia eta txostena eman beharko ditu laguntza ebatzi aurretik.

7. Eskaerak aurkezteko epea, modua eta lekua

Eskaerak aurkezteko hogeita hamar (20) egun baliodun izango dira, foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, alde batera utzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritakoa. Epearen azken eguna balio gabea bada, hurrengo egun baliodunean amaituko da. Eskaerak leku hauetan aurkeztu ahal izango dira:

– Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorra.

– Vitoria-Gasteizko, Guardiako eta Laudioko ogasun bulegoen erregistroak eta eskualdeetako nekazaritza bulegoak.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetatik edozein.

Nolanahi ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek, behartuta daude egoitza elektronikoko berariazko izapidearen bitartez telematikoki aurkeztera (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/solicitar-ayudas-destinadas-a-la-implementacion-de-medidas-preventivas-destinadas-a-mejorar-la-proteccion-de-ganado>): pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

Arabako Foru Aldundiaren web orrian eskuragarri egongo den inprimaki normalizatuan aurkeztu behar dira eskaerak.

8. Eskatutako gastuak eta inbertsioak egiteko epea

Diruz lagundu ahal izango dira 2024ko urtarrilaren 1etik horiek egin izanaren justifikazio epea amaitu arte, hau da, 2024ko abenduaren 9ra arte, egindako gastuak, biak barne.

9. Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea

Dirulaguntzen likidazioa kasuan kasuko administrazio ebazpenean adierazten den bezala egin beharko da, hartan zehazten diren betekizun eta baldintza guztiak bete ondoren.

Arabako Foru Aldundiak ordaintzeko betebeharra aitortu ahal izateko, onuradunak 2024ko abenduaren 9a baino lehen aurkeztu beharko du eskatutako gastu eta inbertsioak egin izanaren justifikazioa, honako dokumentazio honen bidez:

- Diruz lagundu daitezkeen ondasun, objektu edo txakur espezieko animalien erosketa faktura. Hartzekoduna, zenbatekoa eta jaulkipen data adierazi beharko dira.
- Faktura horiek ordaindu izanaren frogagiriak. Noiz ordaindu diren agertu beharko da.
- Laguntzaren xede diren erositako txakurren kartillaren edo pasaportearen kopia.
- Laguntzaren xede diren erositako txakurren erantzukizun zibileko aseguru polizaren kopia.

10. Kreditu erreserba

Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko 40102. G/419402/77000403 "Artzaintza estentsiboko prebentzio neurrietarako laguntzak" partidaren kontura.

1. lerroa: abeltzaintza ustiatagietan prebentzio neurriak ezartzea: 29.999,03 euro.

2. lerroa: ehiza espezieek landa ingurunean eragindako kalteak arintzeko prebentzio neurriak ezartzea: 6.205,33 euro.

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, hasieran erreserbatutako zenbateko berdinez gehienez ere, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Laguntza lerroren batean kreditua soberan geratzen bada, beste izapiderik gabe bideratu ahal izango da beharrezkoa den lerroa.

Bigarrena. Administrazio bidea amaiera ematen dion foru agindu honen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo berari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 18a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
NOEMI AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria
DAVID FERNANDEZ SARABIA